


# uk

263. zenbakia / 2014ko abenduaren 22a





ABANT • ABIAN KULTUR ELKARTEA • AEK • AJURIA TABERNA • ALBE • ALDAI TAPIZERIA • ALTZAGA IKASTOLA • AMETS KAMISSETAK • AMUMAK ELKARTEA • ANDER DEUNA IKASTOLA • ARASA SUKALDEAK • ARGIA • ARLAN S.A. • ARTAZA • ASADOR BERANGO • ASADOR GOIEZTI • BASALBO • BASARTENA TABERNA • BASOTXU TABERNA • BASURTO ALTZARIAK • BBK • BEREZI JATETXEA • BETIKO IKASTOLA • BFA • BILBOMIKRO • BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELK. • BODEGUILLA BUTROI • CAFETERIA COSMOPOLITA • CALZADOS RIKI • CIANOPLAN • CROISSANTERI, KRUSAN DENDA • DENA ONA SUPERMERKATUA • DOVER • EGINKOR INMOBILIARIA • EGIZU GETXO EUSKALDUN • EGUNKARIAK • ENKO • ERANDIO BIDAIAK /CARREFOUR LEIOA • EREAGA BIDAIAK • ETXEART, S.L • EUKALIPTUS • EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA • EUSKORREO /AKROPOST • FADURA INSTITUTUA • FOTO XABIER • FUGU • GALDARETXE S.A • GALEA • GARAIZAR C B • GARDOKI • JATETXEA • GAURKO • GAURSA AUTOAK • GETXO AUTOESKOLA • GETXOGASO • GETXOKO KULTUR ETXEA • GOBELA IKASTOLA • GOIZEAN • GOXOA • GURE ETXEA • HAMILTON • HIRURAK URIBE-KOSTA S.L. • IES AIXERROTA BHI • IES ARTAZA • IES HEZKUNTZA URIBE KOSTA PLENTZIA • IKASTOLEN ELKARTEAK • INTERSPORT GAZTAÑAGA • IÑAKI BITXIDENDA • IRATI MODA • ITSASGANE • ITXAS ARGIA G.C.E • JAN TOKI ORMAZABAL • JAN EDAN URDAITEGI • JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA • JOSE UNZURRUNZAGA HORTZ KLINIKA • JUAN MARI HARATEGIA • KAFE ANTZOKIA • KAI EDER • KALA • KANTXA KIROL MODA • KONTXI URDAITEGIXA • KORTASARRIENA S.L. • KUKUMIKU PRENTSA • KUME DENDAK S.L. • KUX KUX JATETXEA • LA KANTERA SKATE ESKOLA • LA TRIANGU • LAGUSANA LIBURUDENDA • LAIAK TABERNA • LAINOA • LAUBIDE PINTURAK • LEIOABERRI • LIMPIEZAS VILLAR • LOTERIA SOPELA • LUBERRI BASOLANAK • LURREN KAFE TABERNA • MARA-MARA ZURE GUNEA • MARTINA DE ZURIKALDAI • MEDIKOSTA • MENDIBILE • MUGI FISIO • MUNGIA OKINDEGIA • NATURLAN • NORTE JATETXEA • NOVIAS TURQUESA • OARIBIDE • OINUTSIK • OLATXO • ORIXA LIBURUDENDA S.L • OSABIDE HORTZ KLINIKA • PORTU ZAHARRA TABERNA • PRAKAGORRI S.L • PUERTAS Y ARMARIOS SOPELA • REBEL TATTO • SAIAZGETARIA HOTELA • SAN INAZIO AUTOEKOLA • SAN NIKOLAS IKASTOLA • SANTANA KIOKOA • SATISTEGI • SERVITEC LACOFRIK • SOPELNET S.L. • TABERNA BERRI • TALLER MR • THE SECRET GARDEN • TIRO ESKOLA LEIOA • TOPAGUNEA • TRUK EUSKAL HERRIA • TXAKOLI MOTAGANE • TXIBERRI TABERNA • TXIKI AUNDI KAFETEGIA • UDAL EUSKALTEGIAK • UGARI SUPERMERKATUA • UKM • UKNATURA • UNAI TABERNA /Ekin TABERNA • URTXINTXA ESKOLA • USATEGI • VASA • VASCASA • ZAINDU • ZIRRI-MARRA ARTE TAILERRA • ZUA ZUA • ZUBILETA • ZUTARRI • UKSKATEPARK • • •

# Eskerrik asko!

Zuen laguntza barik, ezinezkoa!



URIBE KOSTAKO  
ALDIZKARIA

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337

ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga

ERREDAKZIOA: Zuberua Iturburu, Julen Nafarrate,  
Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Armando Llamosas, K.Olete, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

MARRAZKILARIA: Laurita Siles

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)

FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



## Non zer

4. PLAZA. Urrutitik, Gu Geu.
5. ERRETRATUA. UKberri.net-eko kideak.
6. FACEGUK. Sareko agurrak.
7. URIBITAKOFA. Xabier Paya Ruiz.
8. LEHEN ETA ORAIN. Getxo 8. Leioa 10. Erandio 12. Sopela 14. Berango 16. Plentzia 18. Urduliz 20. Barrika 22. Lemoiz 24. Gorliz 26.

### AGURRAK

9. JOKIN ASPURU ZUAZO.
11. BERBALAMIÑE ETA BIZARRA LEPOAN euskara-elkarteak.
13. AMAIA ARRIAGA LEJARRAGA - BERBOTS euskara-elkartea.
15. BENE MARKAIDA BASTERRETXE / UNAI ELORRIAGA.
17. UNAI BREA GONZALEZ / ARMANDO LLAMOSAS RUBIO.
19. DAVID CRESTELO DOMINGUEZ KRES.
21. AKAITZE KAMIRUAGA / GERMAN KORTABARRIA.
23. MAITANE NEREKAN UMARAN.
25. FREDI PAIA RUIZ.
27. JOSEBA SANTXO URIARTE.

### SAKONEAN

28. SAKONEAN. HIRUKA hasieratik eta barrutik.
30. IRUDIA. HIRUKA-bultzatzaileak.
31. AGENDA.
32. ALBUMA. Euskararen Eguna Uribe Kostan.
34. BERBETAN. Urko Aristi Urdanpilleta.
38. FOTOGRAFIA. Asier Mentxaka Zalbidea.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Agur-pastela.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Bizarra Lepoanen aurkezpena, 1995. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. UK aldizkaria.

Azala: Asier Mentxaka / Jorje Perez

[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)



34 Urko Aristi

### Berbetan

Tokiko hedabideak batzen dituen Tokikomeko presidenteagaz berba egin dugu euskarazko hedabideez...



5 UKberri.net



54 UK



# hiruka

Uribe Kostako komunikazio-taldea





# Costa Ricatik Uribe Kostara



gu geu

## Urte barri on!

Zelan aitortu milaka kontu hain eremu txikian?

Zelan ez errepikatu ohiko esamoldeak?

Agur eta ohore... gordinegi; agian.

Eskerrik asko, mila esker... bigunegi, laburregi, hotzegi; ziur.

Plazera izan da... gozatu dugu, zalantza barik!

Adierazi gura dugun moduan idazteko berbak bururatzen ez zaizkigun honetan, azken aldiaren bozgoragailuak helarazi dizkigun kanta batzuk akordura ekarri... Berba atrakatzailoek, kantuetako hauek lapurtu ditugu:

“... Eskarmentuen ondoren, nik behintzat ez dut zertaz harrotu eta ez dut zertaz damutu. Dena dela, erru banatzaileok, niri ez didazue zertan errua kendu. (...)

Ez egidazue kendu nire errua, ez herri osoaren gure erru zaharra.

Erru gabe ez dut ezer, ez dut ezer egin izan”.

Ene! eta beste hauek:

“Pobreen bizipoza gauza ederra da. Dantza! Orain dantza da (...)

Zergatik dugun hemen hainbeste algara?

Sekretu handia da, marabillosa: bizipozaren alde konjuratu gara!

Ez diamante ez perla ez urre gorririk;

alegrantzia baino ez dago hoberik”.

Euskaldunok hiru katu ete gara U(ribe) K(osta)n?

Zu eta biok, ez ete UKan hiru?

Gainera, hiruka gaitzke! Urte barri on!

**UK-ko lan-taldea**



“Eskerrak eman gura dizkiegu jarraitu gaituzuen guztioi, lagundu duzuenoi, barriemailei... denoi mila esker!”

## UKberri.net > adiorik ez, gero arte baino!

**Hilaren 29an** UKberri.net desagertuko da. Ez da txantxa: “Abenduaren 28ko data jarri genuen hasieran, baina aldatu dugu jendeak ez zuelako sinetsiko”. Berbok Iñigo Fernandez de Martikorena Rodriguez eta Kepa Ugarte Martiarenarenak dira, agerkari digital horren sortzaile-bultzatzaileenak. Hedabideak 11 urte bete ditu sarean; aitortu dutenez, hasieran helburua beste bat zen: “bideo-egitasmo bat sortzea”. Euskaldunon Egunkariaren itxierak, baina, UKberri.net-en sorrera bultzatu zuen: “Egunkariagaz ‘Bizkaia’ gehigarria desagertu zenez, hutsune hori betetzera jo genuen”. 2003ko azaroaren 8an jaio zen UKberri.net, eskualdeko erreferente bihurtu dena: “ez genuen uste horrenbeste oihartzun izango genuenik”. Mota askotako albisteak jaso dituzte urteotan, baina herrigintzagaz lotutakoak izan dira arrakastatsuenak: “beste egunkari batzuk lantzen ez zituzten gaiak izan dira bisita gehien jaso dituztenak”. Izandako bidela-gunei: “Eskerrak eman gura dizkiegu, jarraitu gaituzuen eta lagundu diguzuenoi, berriemailei... denoi mila esker!”. UKberri badoa... Eta hedabide berri batek hartuko du bere lekukoa: “gehiagoren artean abalmen handiagooa izango duen proiektua sortuko dugu”, HIRUKA: eskualdeko euskarazko hedabide berria. “Agur baino, beraz, gero arte!”. © Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**



# UK aldizkaria badoa, zelan agurtu nahi duzu?

## Irkus Sainz de Murieta

Agurra ez dakit, baina zelako pena... Plazera izan da hainbeste urtetan zehar UK aldizkaria irakurri ahal izana! Eskerrik asko!

## Xabi Intxaurtieta

Ez da egia izango? Gure euskarak zer edo zer behar izan badu zuon aldizkaria izan da... Negargarria da euskararen egoe-  
ra Uribe Kostan, eta itzelezko beharra egin dozue berpiztuteko! Dena dela, zorianak kuadrilla.

## June Ansoleaga

Egin duzuen lana goraiatuz! Aldizkari ederra da eta beti izango da. Lastima :(

## Sorkunde Gaminde

Oso ondo bete duzue betebeharreko lana! Agurrrik ez, topako gara!

## Aitor Esteban Etxebarria

Uribe kosteraz bizi UKren ale bat koixi leidu hainbat notizi ta akabuko izango dala baina oingoan ez da krisi alkartuta hiru kizi geure hizkuntzari justizi euskaltzaleon gutizi!

## Txolo

Pena bat da, baina hainbeste gauza desagertzen ari dira momentu txar haue-  
tan... Eskerrik asko zuen lanagatik, eta zorte on.

## Iñaki

Agur geure proiektuari...

## Iñaki

Agur baina amorru!

## Xabi Intxaurtieta

Kanpoan bizi naz eta harritu nau barriak, ez dot ezer jakin eta. Zer dala eta bertan behera itzitea?

Neu izan nintzen sorreran egondako bat, Jokin Aspuru eta Cia, eta pena emoten deust, baina jakin badakit ezer ez dala izaten betirako. Diru arazoak? Nekea? Langileek beste kontu bateri heldu gura? Eskertuko neuke erantzunen bat, bai.

## Asier Oleaga

Bazoazela? Ez dut jakin izan... Lastima, baina... Nork informatuko gaitu euskaldunoi orain gure eskualdean gertatzen diren kontu guztietaz? Nork esango digu orain gure eskualkideek aurrera eramaten duten proiektuetaz? Nork erakutsiko dizki-  
gu orain gure inguruko antzinako argazki horiek? Nork beteko du orain zuk utzitako hutsunea? Besarkada beroena urteotan gurea izan dugun aldizkari hau posible egi-  
ten ibili zareten guztioi. Lan bikaina, plazer bat izan da! Tabernetan ikusiko gara! Osasuna eta askatasuna!

## Iñaki Quesada

Zer egingo dut zu barik? Zelan jakingo dut zer gertatzen den gure Uribe Kosta maitian? Zelan gogoratuko ditugu gure pasadi-  
zoak, aspaldiko argazki maitagarri horiek barik? Eskerrik asko eman didazun danagatik. Inoiz ez zaitut ahaztuko. "Aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena, baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitzan!"

## Eloy Tena

Mila esker, esker mila UK Agenda ta familia, Beti kulturaren bila beti Euskaratik hurbila!

## Josu M. Igartua

UKez-in... UK ez out UKnen dogula. ez adiorik, zUK zeUK emondakoa gugaz gelditzen da.

## Torrebarria

Agurra bota gura neuskizu lagun zaitugun UKri, eskualde hontako aldizkari buru eta lehendakari. Batzutan zerbait irakurrik, beste batzutan kantari, eta edertzeko hamaika argazki begientzako opari. Denbora aurrera joaku baina zu ixteko gabiltz nagi, datorkeen horri adi, sasoi barriaren kabi. Nahiz dinoten lez heriotza zor jakon bizi izateari, gure bihotzak leku egingo deutso zure oroimenari.

## Francisco Javier Perez

Horrenbeste urte eta gero... Euskara ez da izango bera zu gabe, ezta Uribe Kosta ere. U-KGB (UK Gogoan bego!)

## Edorta Mirana

Nire aldetik esker beroenak taldeari. Lana ikaragarria egin duzue, batez ere erakargarria izan da. Prezio ederra... Gauza batzuk faltatzen direnean hutsunea somatzen da.


## Nahia Papaya

Aiba! Zelako pena erraldoia! Ez dago konponbiderik... UK... UK... geu gara zure agurraren errudun... UK UK betiko gogoan! Maite zaitugu!

## Isabel Guezuraga Fuldain

Umezurtz utziko gaituzue Uribe Kostako notizi barik? Hau bai zorigaitza! Gure malkoek itsasoa betetu egingo dabe ta mareak gora egingo deusku... ..batek daki noraino!

## uribitakora > zure papera



Testua: **Xabier Paya Ruiz**

\* Doinua: La Ilorona (Chavela Vargasen doinua, Itxaso Paia moldatua)

Getxon bizarra lepoan zuen aberats eta eskale oro izaten omen zen lehen besteei kalte egin zale, baina esana izendaturik geroaren begirale, aldizkari bat sortu zen eta testuz testu, alez ale esaeraren fede okerrak gurean egin du kale eta bizarra lepoan gaur da jende onaren seinale.

Txapel beltzeko getxoxtar haren lepoko bizarrak zuri ez zeuden, baina jada baziren asmo berrien akuri: zertan aipatu soilik Algorta, Erromo edo Neguri? Ezinezkoa ematen zuen idazki eta irudi bilakatzea hain udalerrri ezberdinentzako zubi! Ezinezkoa ematen zuen... ukazina dirudi.

Ezerezetik aldizkarira, Getxotik eskualdera, hilabetetik astebetara, bakarretik anitzera. Orain **hiruka** sortuko denez gogobetarik, gainera, uribekostar estimatua, gorabeherak gorabehera, arren ez ahaztu bere ekinak jarraitu dezan aurrera funtsezkoena dela beti zuk betetzen duzun papera.



## AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / TF. 94 491 17 86





[lehen]



GETXOKO UDAL LEHURJITEGIA

[orain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / GETXO

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

## Jokin Aspuru Zuazo

Ale-meta



**Badaude,** norberak zergatik ez dakien arren, behin eta berriro gogoratzen diren gauzak, burmuinean gogor iltzaturik lotu diren soinu eta irudiak, oroimenak iraganetik etengabe bidaltzen dizkigun flashak... Euskadi Irratian Harkaitz Cano idazleari aspaldian egin zioten elkarrizketa datorkit gogora sarritan. Zoriontasunaz ari ziren eta elkarrizketatzaileak itaun gatza luzatu zion: zer eskatzen dio bizitzari Harkaitzek? Nire ekarpenez atontzen ari naiz idazlearen erantzuna baina horrelako zozer zioen: *“Gauza handirik ez, zoriontasun apur bat ekar ahal didan gauza bat behintzat egiten ahalegintzen naiz egunero. Gauza txikiak izaten dira: aspaldian ikusi ez dudana lagun batekin basoerdia hartu, pelikula on bat ikusi, neskalagunarekin saioa, saltsa dantzaldia semearekin...”*. Egunerokotasunean ahalegindu, ekintza zaindu edo zoriontasun ale txiki hauen metaketan omen datza Zoriontasunaren (letra larriz idatzirik) sekretua.

Nire eguneroko bizitzan, azken ia hogeitau urteotan, UK alboan izan dut beti: mesanotxean zein egongelako mahaian, komu-

nean zein sukaldean, etxeko bazter denak hartu izan ditu bizilekutzat. Nire bizitzaren parte izan da aldizkaria eta zenbaki edo ale bakoitza esku artean izateak zoriontasun apur bat eman didala aitor dezaket. Arrazoiak asko dira: komunitate baten parte sentiarazi nau, eskualdeko bizitzaren lekukotza ekarri dit, nire auzokoen berri ere bai,

**«Egunerokotasunean ahalegindu, ekintza zaindu edo zoriontasun ale txiki hauen metaketan omen datza Zoriontasunaren sekretua»**

zelan zahartzen garen ere ikusi dut bere orrialdeetan, semeak paperezko hegazkinak egiteko oso erabilgarria ere bada... Kosta egiten zait UK barik etxea imajinatzea.

Ezer ez da betiko, bizilegea da. Badao UK eta badator **hiruka**. Eta aldeztatik badakit gutxienez orain arte eman didan gutzia emango didala berriak aurrerantzean, hirukoitza ez bada. Hura ezagutzeko irrikaz nago. Bihotz-bihotzez, zorte on! ☺

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda




**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris**.s.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA



[lehen]



KULTURILEDA

[ain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / LEIOA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

## Berbalamiñe euskara-taldea > zein arin pasatzen den denbora!



**Horixe** izan zen burutik pasatu zitzaigun lehena lerro hauek idazterakoan. Geu be zahartzen hasi garen seinale... Bizarra Lepoan aldizkaria izatetik UK aldizkaria izatera saltoa egin eta Uribe Kostako euskal komunitatearentzat aurrera pauso itzela izan zen hura: eskualdeko aldizkari euskalduna eta modernoa! Horixe bai erronka! Guretzat, behintzat, ekimenak ezagutarazteko aukera paregabea eman digun bitartekoa izan da: bertso-afariak, txitxi-burruntzia, kantu bazkari edo afariak, agate deuna... Plaza ezin hobea gureari ere bultzada emateko.

Urte hauetan guztietan aldizkariak forma ezberdinak hartu ditu, beti ere *cool* izaerari utsiz. Argazkiak izan dira, gure

ustez, gako nagusia. Norik ez ditu UK-ko argazkiak erabili postal politak egiteko? Maitasun handiz irakurri ditugu ere horoskopoa, herrietako albisteak, faceguk, elkarriketak... Baina bada atal bat bihotzean gordetik daukaguna: [Gure berbalkere]: eskualdeko euskarari buruz ikasteko eta Uribe Kostak mantentzen duen nekazal izaerari eusteko tresna ikaragarria.

Gero arte eta zorionak esan nahi dizuegu UK aldizkaria osatzen duzuenei, hauxe ez delako agurra, ondo etorria baizik! Badator **hiruka** eta, duela 20 urte bezala, eman diezaiozun laguntza eta sostengua, Uribe Kostako euskal komunitatea trinkotzen jarraitzeko. Eskerrik asko UK aldizkaria eta ondo etorri **hiruka!** o

## Bizarra Lepoan euskara-elkarte > Agurrik ez, ondo etorri **Hiruka!**



**Ez da erraza** agur esatea, inoiz ez da erraza. Hau, ordea, betirako agurra ez da. Ez zoaz inora, hemen geldituko zara. Beste itxura bat izango duzu, beste maiztasun eta eduki mota bat, baina esentziak jarraituko du, duela 15 urte gertatu bezala. Bizarra Lepoan aldizkaria izenarekin jaiotzen duela 19 urte eta, lau urteren ostean, euskara elkartetik banandu eta beste izen eta itxura bat hartu zenituen. Ia jaioberria izan arren, bakarrik ekin zenion bideari. Ibilbidea oparoa eta luzea izan da: milaka artikulua, argazki, erreportaje... Lekua eskaini diguzu, gure berri izan dute irakurleek ia zenbaki guztietan eta horregatik, gutaz ahaztu ez izategatik, eskerrik asko! Orain 15 urte bezala, ate bat itxi eta

beste bat zabalduko duzu: handiagoa, aberatsagoa, bidelagun berriekin. Tristuraz eta pozez ixten da sasoi bat, berria izango denaren emozioarekin. Elkarren berri izaten jarraituko dugu, 19 urteotako ibilbidea eta esperientzia egitasmo berrian isaltuko dira eta horregatik, badakigu, garai ederrak datozela. Euskarazko plataforma digitala sortzera doa Uribe Kostan! Gaztelania nagusi den komunikabideen esparruan gogor eta osasuntsu sartuko zara eta horregatik ere, eskerrik asko! Euskaldunoi kalitatezko prentsa eskaintzera zoazelako, kalitatezko webgunea sortzera zoazelako, eta aurrerago, kalitatezko irratia ere jaiotzera doalako. Beraz, agurrik ez UK, gero arte! Eta ondo etorri **hiruka!** o

### saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa



...haria



...lehenago garaiak...




...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



[lehen]



[orain]



ASEBEMENDYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / ERANDIO

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

**Amaia Arriaga Lejarraga** > eta Berbots  
Amaitu da gure artekoa



**Bideari ekin zionean**, UK aldizkariak ez zuen Erandio bere eremuan barneratu. Berbotsen ekimena izan zen UKn Erandio-ko berriak sartzea, eta aldizkaria herrian banatzea, hutsunea sumatzen genuelako. Gertuko prentsa euskaraz nahi genuen, eta eztabaida sortu zen.

Txorierriko Aikor aldizkariaren proiektua lantzen ari zirela, ni hara begira nengo, hainbat bileratan parte hartu, eta Txorierriko egitasmoan buru-belarri sartzeko proposamena luzatu nien Berbots-kideei. Gehienek, baina, Uribe Kosta deitutako aldean zituzten buru-bihotzak, ordurako bidea egina zuen UK aldizkariaren estiloa ere gustuko zuten, eta amore eman beharra izan nuen: UK-ren aldeko apustua egitea hobetsi zuen Berbotssek.

Horrela hasi zen Berbotsen eta UK-ren arteko harremana. Eta ni neu beti tartean. Hasteko, Erandiori dedikatutako lau orrialdeko aparteko gehigarri bat erantsi zitzaion aldizkariari, eta Berbotsseko kideok idazten genituen artikulua: Jokin, Mikel, Guiller, Josu, Jabi eta seiok moldatu geni-

tuen gehienak. Ez galdetu zein urtetan: aspaldi. Nik, orduan, ile-xerlo bat besterik ez nuen koloreztatzen neure burua apaintzeko, eta ez nuen betaurreko beharrik ere.

Gerora, aldizkaria profesionalagoa bilakatu, eta Berbotssek ez du Erandio-ko berriak idazteko ardurarik izan. Edozelan be, jende prestu jatorra garena jakin, eta

### «Berbotssek eskatuta sartu zen UK aldizkaria Erandion»

nahierara baliatu gaitu profesionalen lantaldeak, informazioa batzeko eta edozer-tarako. Ez ala? Baina, honezkero, amaitu da gure artekoa. Estuegi geratu zaigu harremana.

Gaur egun, plataforma digitalak daude modako edo, eta eskualdeko hedabide-plataforma eratzeari ekin diogu, olatua ez galtzeko. **hiruka** da orain gure begietako ninia. Harreman berriak ditugu bistara, interesgarriak oso. Eta ni ilea tindatzera noa, badaezpada ere. ○



Basagoiti Etorbidea 73, 48991 Algorta  
Tf. 946 12 07 52  
facebook/RebelTattooAlgorta

### Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu  
**%50eko**  
**deskontua**  
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta



[lehen]



[orain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / SOPELA

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

## Bene Markaida Basterretxea > prest? hiru, bi, bat...



**Berba horrek** zer edo zeren hasiera datorela dirudite, baina... "Azken-aurreko UK da hau. Bagoaz." irakurri genuenean argi ikusi genuen ezagutzen dogunaren azkena dala ale hau behinik behin. Hainbeste urtetan parajeko lagun izan dogun UK-k aurtengo urteagaz batera agur egingo deuskula jakin izan dogu.

Ia berrogei urte izan arte neure amahizkuntzan analfabetoa izan nintzen honek, ez neban sekula pentsa ere egingo euskaraz ezer irakurtzeko gai izango nintzenik; are gitxiago neure inguruko barriak etxean hamabostero jasoko nebazanik. UK-ri esker izan dot zori hori eta azken alea besterik ez dala esku artean doguna jakiteak pena emon deust. Dana dala ere aldizkaria gorpuztu eta arnasa emon de-

tsen borondate oneko hamaikatxu lagun dira hor, eta eurei eskertu beharra daukat. Inguruko barriak, pertsona askoren lanak, kirolak, kultura, gizarte arazoak jakiteak poztu gaitu urte askoan. Sarritan, argazki barri eder askoren artean, betirako galdu jakuzan eraikin eta lekuak ikusi doguz barriz erretratu zaharretan. Aspaldiko eskola laguna edo erromeria sasoiko adiskide zahar baten aurpegi gazte irribarretsua topa izan dogu, memorian gordeta genduan ume eta gazte aroa berbirtuz. Guzti horretatik eskerririk asko ahalegina egin dozuen guztiori. Besarkada bat eta ea aurrerantzean ere zuen barri izaten dogun. ○

Urte barri barri / Txarri belarri  
Dakizuenok / Ahal dozuenoi...  
Begira geratzen garen guztiori...

## Unai Elorriaga Lopez de Letona > herenegun jaio zena etzi bizirik



**Zalantza izpirik gabe** esango nuke atzo jaio zela UK aldizkaria, herenegun behar bada, herenegun balitz bezala gogoratzen dut behintzat. Izan ere, herenegun balitz bezala gogoratzen ditut aldizkari honetarako eskatu zizkidaten lehenengo testuak, eta zelako sorpresa, publikatzeko idaztea... Artikuluak ere ez ziren, ipuinak, sasi-ipuinak... Sasiak ipuinak baino gehiago.

Bertsoak ere idatzi nituen batzuk. Kantatu lehenengo, etxeko egongelan, edo sukaldean, edo komunean, eta idatzi gero, mila buelta emanda errimari, hankaluzeei, izen eta aditz bakoitzari... Eta azkenean, argitaratu eta gero, beti, oso eskasak iruditzen zitzaizkidan, betegarriz beteak, alferreko puntuez beteak, ideiak ere

inozoak... dutxa azpian horren onak iruditu zitzaizkidanak (ur bero apur bat falta, antza, aldizkari orrietan).

Baina UK aldizkariak zeukan gauza ederrenetako bat ("daukan" ere esan nezakeen, bihar-etzitan ere hor geratuko baita herentzia hori) askotan ikusi ahal izan nuen: hurbileko jendearen komentarioa. Lagun gehienek irakurtzen zituzten nire testuak eta iritziak eman. Segituan nekien zer egin nuen ondo eta zer ez, zerk zeukan indarra eta zerk ez. Herriko hondartzetan zebilen ume baten testua idatzi nuen behin, askok goraiatu zidan testu hura, asmatu nuela iruditu zitzaidan: egun horretan jaio zen *Vredaman* nire hirugarren liburuko protagonista. ○

**OKINDEGIA**

**GO TOA**

San Nikolas Enparantza (Andikoetxeko kantoian) ALGORTA

**IZOZKI-DENDA**


**GARAIZAR**  
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com  
www.garaizar.biz  
Illeta kalea 1 ALGORTA



[lehen]



INDALECO OLANGIENEN ARTIBOIA

[orain]



ASERMENTAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / BERANGO

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

## Unai Brea Gonzalez > bidean



**Hain etxeko** bihurtu zaizkigun bi letra xumeei agur esatea tokatzen da. Ez da UK gehiagorik argitaratuko gehiago. Baina, zorionez, horrek ez du esan nahi eskualdeko, hurbileko, euskarazko informazioa gure etxeetara ailegatuko ez denik. Are gehiago, informazio gehiago eta hobea ailegatuko zaigula esateko zantzuak egon badaude.

Bizarra Lepoanetik UK-ra, hilean behin argitaratzenetik hamaboskaria izatera...

apurka-apurka egin izan dira urratsak, beti onerako. Orain datorrena izango da, seguruenik, bigarren izena aldatuko duen hedabide honen historiako metamorfosirik ausartena eta, aitor dezadan, itxaropen handia sortzen dit apustu horretatik atera daitekeenak: Uribe Kostak behar eta merezi duen euskarazko hedabide integrala.

Ez da gutxi. ○

## Armando LLamosas Rubio > Fenix Hegaztia bezala...



**Hasiera duena** amaituko da. Ondarretan gaudenok ondo dakigu *oraingoa* kudeatzen dugula, gure usteko *oraingo* onena egiten saiatzen garela. Noizbehinka kale egin arren, gure lanari ekin behar diogu, hobetzen saiatzen, ikasten saiatzen eta zerbait hobea sortzen (saiatzen).

UK badoa. Batzuek usteko dute aldizkari hobea izan zitekeela, hobeto kudea zitekeela, anbizio handiagoa izan zezakeela, argazki gehiago, koloreak, gai sakonagoak, arinagoak, kirola, kultura... baina, dudarik gabe, ahal zen onena egiten saiatu da; beraz, ezin hobea izan da. UK-egile batzuk ezagutu ditut; aurkitu dudana lana zein ilusioa ezin hobea izan dira beti. Errekurtso gutxi, hitzun gutxi... oso duin den aldizkaria sortu digute. Berrero, ezin

da gehiagorik eskatu. UK hil behar omen da. *Fenix Hegaztia* bezala, errautsetatik beste proiektu bat sortuko da. Ezin hobea izango da, seguru, gurea, gure herrietan eta gure hizkuntzan komunikazio-proiektu bat izango baita.

Ondareari dagokionez, UK ixteak beste ziklo bat irekiko du. Konturatu gabe, Uribe Kostako lekuko ezin hobea utziko diegu geroko belaunaldiari. Ez dakigu nolakoak izango diren gure herriak eta gure paisaiak; ezta gure kultura ere: euskaraz, gaztelaniaz edo txineraz, auskalo; baina kultur ondareari buruzko funtzio garrantzitsua bete dugu: nolakoak izan garen, nolakoak garen eta izan nahi dugun jakiteko iturri preziatu bat sortzea. Eskerrrik asko UK-ri, eta UK-egile guztiei! ○



Luberr Basolanak, SL  
Axpe ibaiertza 28A  
beheko solairua B12 lokala  
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38  
Tf: 94 467 17 13  
Faxa: 94 467 42 41  
luberr@euskalnet.net  
www.luberr.biz

### - Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

### - Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.

### - Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

### - Barrualdeak lorategi bihurtzea



[lehen]



[orain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / PLENTZIA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

## David Crestelo Dominguez Kres

Euskaldun berri baten aitormenak...



**Ez naiz gogoratzen** noiz ezagutu nuen, uste dut duela urte batzuk izan zela, euskaltegian akaso, baina hasieratik zerbait sentitu nuen. Ez da esaten lehenengo begirada oso garrantzitsua dela? Niri, behintzat, atentzioa deitu zidan: beti ondo jantzita, galanta, aurrean neukanean ezinezkoa zen kasurik ez egitea, ukitzen saiatzea, usaintzea... Herritik bilatzen hasi nintzen, ea nondik mugitzen zen, norekin... Batzuetan parranda botatzen, beste batzuetan kafe bat hartzen, edo supermerkatuan, gaixoeekin osasun-zentroan, Museoan edo liburutegian... Ni, pozik; baina aldi berean, beste batzuekin konpartitu behar nuela onartzera behartuta ikusi nuen nire burua. *Si el amor es posesión yo soy capitán de un globo...* abesten du Evaristok. Eta ulertu nuen: 'ez zara bakarrik nirea'.

Hala ere, gure harremana estua izan da eta garai batean gertuago egon gara. Estereotipo fisiko guztien gainetik euskarak elkartu gintuen: zu irakurtzea, hasieran erronka zena, plazer bihurtu zen;

geroago, zailtasunez zailtasun eta muga propioak gaindituz, zuretzat idazteari ekin nion... Baina bizitzan erabaki batzuk hartu behar dira eta zugandik distantzia hartzearena ez zen batere erreza izan. Nire errua izan dela aitortu behar dut. Ez naiz oso adeitsua, batzuetan despistatua eta gainera beti nire gauzetan pentsatzen... Alboan dagoenak paira-

**«Zu irakurtzea, hasieran  
erronka zena,  
plazer bihurtu zen»**

tzen du nire alferkeria. Betiko moduan. Apurka-apurka urruntzen joan gara, baina bidetik beti dei bat, edo argazki bat, edo mezu bat gurutzatu dugu.

Azken erabakia zuk hartu duzu: bizitzako proiektu berri batean sartuko zarela eta aldatzera zoazela. Pozten naiz eta irakurleak, kazetariak, begiraleak, argazkizaleak, euskara eta Uribe Kosta osoa poztuko direla ziur nago. Eskerrik asko UK Aldizkaria egiten duzuenoi! Ongi etorri **hiruka!** ○



**BETIKO**  
IKASTOLA

*Kalitatezko  
irakaskuntza  
euskalduna*

· 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

· Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

· Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

· Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

· Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO!**



GIZONENTZAKO  
MODA

**Zabala 9**  
ALGORTA  
Tf. 94 460 70 84



[lehen]



[orain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / URDULIZ

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

## Akaitze Kamiruaga Garitaonandia > zorte on eta bizitza luzea!



**Joan dan astean** “abendukoa, UK al-dizkariaren azken alea izango da”. Ezustean hartu ninduen albisteak, eta egia esateko, disgustua ere hartu nuen. Aspaldian Uribe Kostatik kanpora, beste eskualde baten bizi naizen arren, gogotsu eta gustura jarraitu izan ditut UK-ko berriak aldizkaria heltzen zenean. Burura etorri zitzaidan lehenengoa: “*Hamen, zorioneko krisi honen beste ondorioetako bat*”. Baina, batekoagaitik, ezustearen ostean etorri zen la-saitasuna: “*...trankil beste egitasmo bat daukagu martxan...*”. Hodei beltzen artean, argi-izpiak zabaldu ziren.

Agurrak, edozein eratakoak izanda ere, gehienetan dira tristeak. Baina kasu honetan ez dauka betiko egiten denaren tristu-

ra eta mingostasunik. Oraingo honetan neguan zimeltzen den landarearen parekoa dugu UK; hurrengo udaberrian indarberrituta berpiztuko den lorea.

Bizarra Lepoan hasieran, UK gero eta **hiruka** hurrengoa. Ibilbide luze honetan makinatxu bat elkarriketa, argazki zahar eta berri, albiste eta erreportaje ikusi eta irakurri izan ditugu. Sarri beste egunkari batzuetan tokirik ez dutenak, baina herriek eta herritarrek behar-beharrezkoak ditugun horietakoak. Gaztelera nagusi den eskualde honetan, euskeraz gainera!

Nire aldetik besterik ez. Zorte on eta bizitza luzea opesten diot proiektu berriari. Gogor behar egiteko gogoa eta adorea zeuek ipini beharko duzue. Animo!! ◊

## German Kortabarria Igartua > mila esker, UK!



**Kanpotik datorrenak** zinez estimatzen du toki berriaren ezaupidea errazten dionaren laguntza. Niri dagokidanez –Txori-erriko itsasaldera inondik etorria bainaiz neu ere– UK aldizkaria izan nuen laguntzaile horietakoa, bertoko gizartearen eta, areago, euskaldungoaren berri eman baitzidan: bazegoela, alegia, geltokitik etxerako eta etxetik geltokirako neraman ibilbide murriztetik harago bizi den herri bizi bat!

Geroago, duela bi urte eta erdi inguru, aldi behin zertxobait idazteko eskatu zidaten UK-koek. Baietz esan nien, egin-kizuna *K.Olate*-ren esku uztekotan: beraz,

nire alter egoa izan da mandatua ahalik eta txukunen bete duena, gehienetan UK-ri legezkiekeen eremuetatik landa ibili dela iruditzen bazait ere.

Honekin azken alera iritsi da aldizkaria. UK ez da, baina, desagertuko, aiez ale metatutako hogeitun urteen lekukotzak hor jarraituko duelako, eskura. Jarraipena ere izango du, nonbait, ubide berrira isuriko dela iragarri baita orain arteko emaria.

Despedidakoan, aitortpena eta esker ona orain arteko UK-ri. Eta zorterik onena jakin-minez espero dugun proiektu berriari. ◊

# EGUNKARIAK


prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
TF. 94 491 27 34



[lehen]



INDALECO OLANGIENEN ARTIBOIA

[orain]



ASERMENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / BARRIKA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

## Maitane Nerekan Umaran

Ez da udaleko aldizkaria



**Hori pentsatuz** sartu nintzen orain 9 urte UK aldizkarira eta bertan emandako 6 urteetan zein osteko 3etan behin eta berriz egin behar izan dut argipen hori: ez, UK ez da udalaren aldizkaria. Zer da UK orduan? UK herri-proiektua da, euskaraz bizitzeko aldarria, herri-informazioa, irudi finkoen plazera, herri-ondarea, ahotsik gabekoen bozgorailua, uribekostarron ondare bizia, bertako berbakeraren leiho xumea, herritar jatorrei gorazarrea, hurbileko argazkilarien erakusleioa, euskaraz bizi nahi dugunontzako normaltasuna, hurbileko kazetaritzaren adibidea, urrun daudenen-tzako herrira bueltatzea, inguruko kazetari euskaldun askoren entrenamendua... hori eta askoz gehiago ere bada UK. Baina niretzat, harribitxi honetan parte eta arte izateko plazera izan dudan honentzat, beste gauza asko ere bada: betiko lagunak, nire herriaz maitemintzearen erruduna, lanaldi luzeegietako izerdia, euskaraz bizitzeko aukera, gramatika eta ortografia eskola...

Horrek ez du esan nahi atzean hainbat erakundek, herri-enpresa txikiak zein harpidedunek jarritako dirua ezinbestekoa

izan(go) ez denik 15ean behin umeaz erditzeko; horregatik herri-proiektu hau beraiena ere bada.

Zorionez agur keinu hau malko barik ateratzen den horietakoa da, ongi etorriarekin batera baitator. Garai eta behar berriei egokitzeko beharra ikusi dute proiektuaren arima diren inurri langile horiek; baita euskal komunikazio proiektuen arte-

### «Euskaraz irakurri eta ikusi nahi dugu Uribe Kosta»

an elkarlana bultzatzeko beharra ere. Ezagutzen ditut tamainako erabaki ausartek sortzen dituzten antsietate-krisiak. Beraz, nire baleriana eta kanta lasaigarri guztiak zuentzat (droga kimikoak ekiditen saiatu). Euskaraz bizi nahi duten uribekostarrak proiektu honek duen garrantziaz jabetuko direlakoan nago; euskaraz irakurri eta ikusi nahi dugu Uribe Kosta eta erditze-ar duzuen tresna komunikatiboa horretarako betaurreko ezinbestekoak dira. Besterik gabe; plazera izan da. ○

DIDAK  
**hamilton**  
IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tf. 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

**zaindu**  
Esku Terapia Zentrua  
Osteopatia - fisioterapia  
**Ane Nafarrate Martin**  
Doctor Landa 4, Sopela  
Telf.: 946026779

**ANDER DEVNA**  
**IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
Tf. 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net



[lehen]



INDALECO OLANGIENEN ARTIBOIA

[orain]



ASERMENTAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / LEMOIZ

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

## Fredi Paia Ruiz

Pausorik pauso beti



**Bederatzi urteko** sein berdingoa nintzen ni orduan. San Nikolas ikastolako gelako arbelean Nafarroa Oinez-eko abestia idatzi berri zuen andereñok. *Ezina ekinez egina* zen urte hartako leloa eta *“pausorik pauso beti bidea eginez, geroa irabazi behar dugu oinez”* kantatzen zuten Lizarrako umeek.

Kanta hori etorri zitzaidan burura UK-ren eraberritze proiektuaren berri izan nuen. Zuri-beltzeko Bizarra Lepoan haietan antsiar bilatzen nituen Xabi Bilbaoren *Akabuko Punte* zein Andoni LLosak bertoko euskaldun zaharrei egindako elkarrizketak, Bittor Egurrolaren argazki zaharrak... Kolorea eta eskualde osorako difusiorako tresna beranduago etorri ziren. Asier Mentxakaren argazki zoragarri jarritako bertsoak, eskualdeko pertsonaia herrikoien soslaiak... Nire gustuek sekula ez didate balio izan gizartearen joerak aurreikusteko, nik izugarri gustuko nuen aldizkari txikia ez nekien zein sustraiturik zegoen gure etxeetan. Eskualdeko edadeko euskaldun zaharrak entzun eta grabatzen eman nituen urteetan konturatu nintzen zein garrantzitsua zen UK eurentzat. Erretratuen bidez berba egiten ziren aldizkaria. Behingoz, euren *auskereri* keinu egiten zion hamaboskaria.

Dokumentazio aldetik altxor handia izan da gure eskualdeko aldizkaria. Dese-rosoak diren gaien gainetik ur azaletik oinez ibiltzea leporatu izan diot nire kolko-rako. Baina plano intelektuala eta emozionala bereizten ez dakizkien herri honetan, agian irtenbide posible bakarra zen. Ezta-baidak ideien planoan uzten ikasten dugun arte.

### «Orain hiztun komunitateari dagokio gogoeta»

Pausorik pauso beti. Euskal hiztun komunitateak erabileraren erronkari aurre egin behar dio hamarkada honetan. Horretarako, ezagutza bultzatzeko nahikoak ziren tresnak askiek dira orain. Eskualdeko komunikabide euskaldunek gogoeta txalogarria egin dute. Orain hiztun komunitateari dagokio. Arnasguneak sortuz, komunitatea trinkotuz, erabilera eremuak blindatuz. Algortan eratzen dabilen Azebarri arnasgunearen ildotik. Horrek konpromiso militante, ekonomiko eta profesionala eskatuko digu hiztunoi. Egongo ote gara etorkizuneko erronkek eskatzen ditugun mailan? ○

**OINUTSIK**  
KONTSULTA PODOLOGIKOA  
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
48600 Sopelana  
Tf. 94 404 74 20  
CITA PREVIA  
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU  
ONGIZATEAREN  
ZUTABE, OINEZ  
EDONORA HEL  
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

# aldai

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiaik, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com  
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

**UKnatura**  
SIVEK PORTUGALISTE  
ESKOLA SUPERIOR DE NÁUTICA PORTUGALISTE  
MARIA DILS DE BARRO 48  
NORO PORTUGALISTE OZTARAZA

2013-2014 KURSOA

- \* BIOERAKUNTZA TAILORRAK
- \* ARTISAU XABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- \* BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- \* ENERJIA BERRIZLEZARRAK
- \* HAZIEN KATZEN

ETA ASKOZ BEHAGO.

www.uknatura.org 692705471 / 646742241



[lehen]



ASER MENTYAKA

[orain]



ASER MENTYAKA

## Iraganez doa denbora\* beti / GORLIZ

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea

[agur]

## Joseba Santxo Uriarte

UK dagianak, EUSKARA lepoan!



### Kaixo, UKatarrok!

Amaitu baino lehen, horra hor nire agurrak:

UK dagianak, EUSKARA lepoan.

UKaldizkaria: zuri-beltzik koloretsuena!

Ez bedi UK buka! Ezin genezake uka gaudela txarto ohituta kalitatezko prentsa hartuta oso gutxi ordainduta. Hau da maUKa!

Orriz orri, herriz herri, zenbat orro eta irri, zenbat salto eta malko, zenbat berba, zenbat juerga, zenbat trabes, zenbat estres... ene zenbat orrialde gure euskararen alde!

«Gogor segidu betiko. Uxela!»

UKak K bakarra du hori ezin uka: Kalitatearena, hasi eta buka. Konpromisoa eta Kolegak batuta, ez K bat, ezta K bi, hori da HirUKa!

Uribe Kostan deku altxor bat itzela: erretratu politek, ederra papela, barrik interesgarrik, auskeran nibela! Bada denbora luze pentsaten dotela UK horrek luzeron bizi ber leukela. Halandaze bestekaz alkartu daitela eta gogor segidu betiko. Uxela!

Besarkada handi bana eta beti arte!

## OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96



## GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa”

Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1  
Tf. 94 430 22 13  
GETXO



## Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com



ukskateparkberango@gmail.com

Tf. 664 226 700

Sabino Arana 60, BERANGO







# Abe. 22 - Urt. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 944 911 337

## HIRUKA-AURKEZPENAK

### LEIOA

▶ **Urtarrilak 8, 19:30ean.** Udal-euskaltegia.

### ERANDIO

▶ **Urtarrilak 8, 19:30ean.** Astrabuduko kultur etxean.  
▶ **Urtarrilak 16, 19:30ean.** Altzagako posta zaharrean.

### GETXO

▶ **Urtarrilak 15, 19:30ean.** Algortako kultur etxean.

## MUSIKA

### BERANGO

▶ **Otxandategi-abesbatza.** Abenduak 26, 20:00etan. Antzokian.  
▶ **Simon Otxandategi dantza-taldea.** Abenduak 28, 12:30ean. Berango Antzokian. Doan.

### BARRIKA

▶ **The Upper Room.** Abenduak 28, 12:00etan. Andra Mari elizan.

### ERANDIO

▶ **Gabonetako kontzertuak.** Abenduak 29 eta 30, 20:00etan. Astrabuduko San Lorentzo elizan.

### BERANGO

▶ **The Upper Room.** Urtarrilak 2, 19:00etan. Berango antzokian. Doan.

## ANTZERKIA

### LEIOA

▶ **Codigo postal 00.** Abenduak 27, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.  
▶ **Gretel & Hansel.** Abenduak 28, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.



Argazkiak eta testurik onenak ikusgai

### ▶ Erakusketa

#### ArgIHizkiak lehiaketaren erakusketa Sopelan

Argazkietan oinarritutako testu-lehiaketa da ArgIHizkiak eta bere erakusketa Sopelan izango da urtarrilaren 7tik aurrera. Egizu elkarteak eta UK aldizkariak antolatu dugu, euskara elkarteen, Udalen eta Mankomunitatearen laguntzagaz. Hamar argazkilarik parte hartu dute aurten: Garikoitz Bilbao, Zuriñe Unzueta, M<sup>a</sup> Victoria Bengoa, Alfredo Aldai, Jon Astorquiza, Asier Mentxaka, Andoni Berriotxo *Lubaki*, Ana Gonzalez, Mikel Martinez eta Endika Martinez. Testurik onenak, barriz, Maitane Nerekan Umaranena (labur-laburra) eta Josu Gotzon Landeta Egurrolarena (laburra) izan dira (guztira 100dik gora jaso ditugu). Epaila lanetan jardun dute Itxaso Paia Ruizek eta Edorta Españak.

• **Non:** Kurtzio kultur etxean • **Noiz:** Urtarrilaren 7tik 18ra

▶ **Mobil.** Abenduak 29, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.  
▶ **Babyloon.** Abenduak 30, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

### GETXO

▶ **Olentzero eta zaku magikoa.** Abenduak 28, 18:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.  
▶ **Sun magoa.** Abenduak 29, 18:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.

### ERANDIO

▶ **Codigo postal 00.** Abenduak 28, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.  
▶ **Circo Deja Vu.** Abenduak 29, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.  
▶ **Kibubu.** Abenduak 30, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.  
▶ **Potxin eta Patxin.** Urtarrilak 2, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean. Doan.

▶ **Lagunekin baratzean.** Urtarrilak 3, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Doan.  
▶ **Magia-ikuskizuna.** Urtarrilak 4, 19:30ean. Astrabuduko kultur etxean.

### SOPELA

▶ **Sutondoan.** Abenduak 29, 18:00etan. Kultur etxean. 3 euro.  
▶ **Nikolayeva balleta.** Abenduak 30, 18:00etan. Kultur etxean. 4 euro.

### BERANGO

▶ **Txerriketan berriketan.** Abenduak 29, 18:00etan. Antzokian.  
▶ **Oliver magoa.** Abenduak 30, 18:00etan. Berango Antzokian.  
▶ **Aladin y la lampara maravillosa.** Urtarrilak 3, 18:30ean. Antzokian.  
▶ **Nikolayeva balleta.** Urtarrilak 4, 18:00etan. Antzokian. 3 euro.

## ZINEMA

### GETXO

▶ **12 años de esclavitud.** Abenduak 26, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,90 euro.

### GORLIZ

▶ **Mortadelo y Filemon.** Abenduak 27, 18:00etan. Kultur etxean.

### BARRIKA

▶ **Como entrenar a tu dragon II.** Abenduak 30, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

## BESTEAK

### SOPELA

▶ **Sopelako III. Pala Motzeko Binakako GMGZ Kiniela.** Abenduak 28, 11:30ean. Pilotalekuan.

### GORLIZ

▶ **Triki-poteoa.** Abenduak 27, 19:30ean.

[irudia]



**Ez gaude denak...** / Baina gauden gurziak gara: **hiruka**-bultzazaitlaak. Eta momentuz garenok ezagun dirazun: Berbots Erandiko euskaltzaleen topagunea, Getxoko Bizarra Lepoan euskara-elkartea, Leioako Berbalamiñe euskara-elkartea, Egizu Getxo euskaldun elkarteak, ALBE Algortako bertsoari eskola,

Sopelako Aitxul euskara-taldea, Lemoizko Koixi euskara-elkartea, Plentzia eta Gorlizko Legarondo euskara-elkartea, Urbe Kostako AEK, Leioako Beitko ikastola, Sopelako Ander Deuna ikastola, Plaza Belzta elkarteak, UKberri.net-eko kideak eta UK-ko lan-taldea. Argazkian bar baino gehiago falta dira... Zu izango zara? ○ /

ALGORTA, 2014KO ABENDUA

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



[albuma]



**EUSKARAK  
365  
EGUN**

# 365 egunez, euskaraz

*Maita nazazu gutxio eta goza nazazu gehiago!* Euskarak iraungo badu erabiltzen delako izango da. Abenduaren 3an, Euskararen Egunez, horri buruz ohartarazi zen gure eskualdean: Algortan kalejira eta Euskara Ereiten saria, Erandion eta Sopelan Berbodromoak, Plentzian Mikel Markezen hitzak, berbetan, kantuan... eta beste hamaika ekimen Uribe Kosta osoan. Euskarak 365 egun izan behar dituelako: egin dezagun!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





[berbetan]

Urko Aristi Urdanpilleta (Arribe, 1977) kazetari eta telebista-aurkezle nafarra da otsail ezkeretik Tokikomeko presidente. Tokiko edo herri-hedabideak batzen dituen enpresa da Tokikom, eta UK aldizkaria eta UKBerri.net kide dira sortzetik. Hedabide horien agurrean gabiltzala, beragana jo dugu, argi bila eta berezko duen baikortasun kutsakorraz blaitzeko asmoz. Aristik urte askoan bultzatu eta idatzi du bere eskualdeko Mailope aldizkarian; irrastian ere jardun du, Aralar eta Euskalerrira Irratietan; ETBko albistegietarako berriemaile izan zen Iruñeko korrespontsalian, eta gero, denboraldi batetarako Ana Urrutia ordezkatzuz Eguraldia saioa aurkezten hasi zen, gaur arte! Orain saio horren zuzendari da. Telebistan, beste hainbat saiotan ere jardun izan du: Bertatik Bertara, EITB Kultura (gidoigile), edo Bi errepidean.

# Urko Aristi

## Eguzki-izpia, lanbro artean

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Euskararen egunean Erandioko Udalak eta Berbotsek antolatutako berbodromoan izan zinen, baten giro?

—Ikaragarri ona! Sekulako bibrazio onekin itzuli nintzen. Hirugarren urtea da Erandioko berbodromoan parte hartzen dudala, eta aurtengoa sekulakoa izan da! Ikusi dudan jarrera ikaragarria iruditu zait, ezagutu ditut hainbat kasu... denak ere azpimarratzeko modukoak! Itxaropentsu itzuli naiz, askotan esaten delako gazteen belaunaldia galdu dugula, baina gaur erandiotarrek erakutsi didate ezetz, esperantzarako tarterik ere badagoela! Beraz, esperantzara kondenatuta egon beharko dugu. Aurten, esaterako, aurreneko lana jarri zaie klima aldaketaz hitz egitea; eta ño! Hor antolakuntza... Gai errepikaria izaten da eguraldiaz hitz egitea, aurrez aurre duzun hori ezagutzen ez duzunean... Baina, eguraldiaz baino, eguraldiaren klima aldaketaz! Ene, aizu! Erronka handi xamarra izan da; gainera, hasieran jendea beti urduri xamar egoten da parean zein izango duen ez dakielako... Azkenerako, nik uste, guztiak lasaitzen

direla. Hasieran, beldurra ere izaten dute, euskaltegiko ikasleek esaten dizute: *“Jo! Es ke nik ez daukat maila nahikorik!”*. Eta beti esaten diegu: ez, garrantzitsuena ez da maila erakustea, hemen ez dago irakaslerik nota jarriko dizuenik, hemen garrantzitsuena egitea da, ondo edo gaizki, baina, egitea. Hori lortu behar dugu: berbodromo txiki horretatik, berbodromo handi batera pasatzea, eta halako ekimenen bidez herria bera ere berbodromo erraldoi bihurtzea denborarekin.

### “Berbodromo txiki horretatik handiago batera pasatu; denborarekin herria bera berbodromo erraldoi bihurtzeko!”

—Datorren urtean Tokikomek bazkide bi gutxiago: UKberri.net eta UK.

—Bai. Baina, badakizu, ni neroni handia naizela eta zuloak tapatzen jaioa, beti beste ordezko ibiltzea egokitzen zaidalako! Eta esango dut: bi gutxiago izango dituela, baina izango du bat, berria eta sekulakoa, handia eta ikaragarria! Hala ere, ez

digu besteak ahazaraziko, hori ezinezkoa baita, baina horien hutsuneak inork baino hobeto beteko dituela seguru baietz!

—Eta zer dakizu bada proiektu berriaz?

—Kar-kar... Bada hirukiek hiru ertz, hiru alde izaten dituztela, eta hirurak elkartuta, horregatik dela hirukia... Hiru puntu, hirurak marra batez elkartuta... Eta niretzat mundu honetan elkartzea bezalakorik ez dagoenez, sekulakoa izango da! Hiru puntu, bata honago bestea harago, baina marra batez elkartuta; eta halakoak

gehiago behar ditugu Euskal Herrian, puntuak elkartzeko marrak... Beste behin, inguru horretakoek, Uribe Kostakoek, erakutsi digute ahal dela, eta egingo dutela! Eta horretarako gure laguntza behar badute, izango dutela, noski!

—Daborduko laguntza ezin hobea izan dugu, bai!





—Bai, gure Inazio (Arregi) handia, oraindik Argentinan dabil, baina jakin ezazue, zuetaz akordatzen ari dela! Haren seme kuttuna zarete! Hark erentzian horixe utzi zigun! Tokikomen ibili da urteotan, eta zuzendari aldaketa eman denean, gaiak eta aztertzean, igartzen zitzaion aurpegian bai, haren seme kuttunak zaretela! Eta horixe, umea zaintzeko enkargua utzi zigun...

—Hainbat buruhauste ere utziko zizuen! —Zorionez edo zoritxarrez, bazter guztietan ditugu... Batzuetan buruhauste horiek poz bihurtzen dira, eta oraingoan, zuen kasua hori da behintzat; beraz, ondo!

—Buruhausteak aipatuta, denbora laburra daroazu Tokikomen buru, zelan? Lan handia duzu tokiko komunikabideokaz?

—Bai... Tokiko komunikabideak nik neronek ezagutzen ditut 20 urte eman nituelako Mailopen boluntario lanetan, asteburuetan nire lana utzi eta hara joan, aldizkaria aurrera ater... Beraz, nolabait ezagun dut tokiko komunikabideen egoera zein den. Gertatzen da Mailope dela Tokikomeko elkarterik txikiena, eta orduan gure arazoak ere, proportzioan, txikiagoak izaten dira. Orain, beste mailara pasatzearekin, orain guztien aitaxo edo artzain naizen horrekin, artaldea gobernatzeko batzuetan nahiko lan izaten da; tartean ardi beltzik ere bada, eta okerrera: otsorik ere bada inguruan! Tartean artaldearen bila datorrena... Otso horiek ere uxatu behar ditugu, ezta?! Egia da, urte mugitua izan dela, norabide askotan, baina esango nuke gozotik eta gazitik izan duela; esan nahi dut: uste dut aurrera goazela; Tokikomek lehenengo bi urteetan, Mikel Irizarren gidaritzapean, sekulako abiadura hartu zuela, eta garrantzitsuena: motorra bera martxan jarri genuela, autoa abian jarri genuela... Orain nire ardura da motor hori ez gelditzea, *tzarra-tzarra-tzarra* bidea egiten segitzea, eta proiektua egonkortzea. Orain arte jaioberri bat izan gara, eta jaioberriek, badakigu, gaixotasunak-eta harapatzeko ere erraztasun handiagoa izaten dugula. Orduan, saiatuko gara gure haur

koxxorra haz dadin, eta haz dadin osasuntsu eta sendo! Horretan ari gara. Denbora gehiago beharko dugula? Beharbada, abiadura moteldu beharko dugula? Agian bai, baina aurrera egingo dugu sendo! Hori izango da gure helburua.

—Azal egiguzu Tokikomeko barrua: organo nagusiak, zerk betetzen du haren garuna eta abarrak...

## “150 langile herri-komunikabideetan, 600dik gora kolaboratzaile... hori beste inork ez du! Gure indargunea dira”

—Tokikomen helburuetako bat solaskidetza izan zen; toki komunikabideen edo komunikabide “txikien” ordezkari izatea, bai beste erakundeekiko, bai sektoreko beste eragileekiko. Horrek batzuetan protokoloa eskatzen du, ia-ia gorbata jantzi eta politikariengana joatea; eta beste batzuetan, berriz, gure gisara euskarazko komunikazioan ari diren beste enpresetara joatea. Eta, noski, bakoitza bere aitarenak eta amarenak GARA, baita gu ere! Denok ditugu gure maniak, eta gehien-gehienok ditugu gure bertuteak. Zorionez edo zoritxarrez, esango nuke entzuten ona naizela, hitz egiten bezain ona, hobea kasik! Hitz egiten.. isildu ez naiz isiltzen, behintzat; gero, fundamentuzko zerbait esaten dudana ala ez, hori beste kontu bat da! Baina, entzuten ona naiz, eta uste dut horretan

## “Sarea josten dugu tokikoen artean, eta besteekin ere bai! Ateak jo ditza-gun guztion artean; bestela, akabo!”

asmatu nahiko nukeela: besteena entzun eta besteei gurea entzunarazi; hori da nire lanik handiena. Orduan presidente naizen ordutik, protokoloak kentzen dit niri denbora asko; eguneroko lanerako badugulako zuzendaria, Alaitz Artolazabal, eta Joxe Rojas lankidea ere bai... Horiek hor ditugu, eguneroko lana egiten, proiektuen ku-

deaketaz-eta arduratzen dira, pixka bat horiek laguntzen eta bideratzen, eta niri protokolo lanak egokitzen zaizkit gehiago. —Talaia horretatik ikus zenezaketen tokiko hedabideen erradiografitik, zer ondoriozta dezakezu?

—Nik esango nuke sekulako indarra dugula, deigarria bada ere, pentsatzekoa baita denborarekin beharbada nekatuta egon

gaitezkeela, eta ahul, baina ez da hala; eta kontuan hartu neroni, adibidez, Nafarroatik natorrela, eta Nafarroan zenbat markillada jasotzen ditugun! Eta hala ere, etxean kokilduta geratu beharrean, zer eta indar erakustaldi batean gaude! Mezu eraikitzailearekin, esanez: egoera zaila da, noski; badugu krisi orokorra, badugu komunikabideen krisia, eta euskarazkoena zer esanik ez! Baina, hala ere, horrekin beldurtu beharrean, aldrebes: aurrera egingo dugu, sinesten dugulako! Lehengoan, amak errieta egin zidan hamaika mila saltsetan sartzen naizelako! Eta hala esan nion: errua zeurea da, ama! Txikitatik erakutsi didazulako, etxean, zein garrantzitsua den euskalgintza eta herrigintza. Niretzat Tokikomek biak uztartzen ditu, euskalgintzaren bidez herria sortzen ari gara,

Tokikomek horixe duelako: sare bat osatzen ari garela; sare bat osatzen du euskaraz ari garen hedabideekin eta, hartara, herri bat eraikitzen ari gara. Eta horretan sinesten dut! Eta nire antzera, meritua noski ez delako nire bakarrik, esango nuke baditugula ia 600dik gora kolaboratzaile, eta hori sekulakoa da! Hori ez du beste

inolako enpresek! Neurriei erreparatzen badiegu, Tokikomek berak badituelako 150 langile inguru herri-komunikabideetan ari garenak... Beharbada ez oso baldintza duinetan, askotan militantzia eskatzen zaigu... Baina ezin ahaztu gurea lana ere badela, euskararen aldekoa, baina lana da! Horregatik langileak baditugu, eta langileez aparte kolaboratzaileak ditugu, proiektu-

## “Eguzkia izango dugu dir-dir hirukarentzat! Laino beltzik ez parean!”

tuan sinesten dutenak eta beraien denbora librea eta ahalegina guri laguntzeko jartzen dituztenak; eta hori beste inork ez du! Nire ustez hori da gure indargunea.

—Etorikizuneko erronkak?

—Hiruki hani-handi bat sortzea! Kar-kar!

Eta Euskal Herria hirukiz betetzea! Gero hirukia beharrean laukia, edo pentagonoa, edo delakoa dela... halako forma geometrikoz josi dezagun gure geografia, Euskal Herria. Eta guztien ertzak batu ditzagun marra zuzenen bidez, eta egin ditzagun halako irudi geometrikoak nahi bezain beste, hori izango baita: batetik, gu garenaren islada, eta bestetik, baita ere, herri-

hau auzolanean eraikitzen ari garenaren seinale, beti ere euskararen mesedetan.

—Eta, Tokikom sortu eta gutxira, Hekimen jaio zen...

—Nik uste hori ere albiste pozgarria dela; eta esango nuke, neurri handi batean He-

kimen bera sortu bada Tokikom sortu izanari esker izan dela. Azkenean, egin duguna izan da: gu gure etxean elkartu gara, eta ondoko auzokoekin ere elkartu gara. Lehen saregintzaz ari ginenean, hori da: sarea josten dugu gure gisakoen artean, tokikoen artean (Tokikom), baina sarea josten dugu besteekin batera ere bai. Uste dut garai bateko zauriak pixkanaka-pixkanaka sendatzen ari direla, garaia ere desberdina da, eta azkenean, nire ustez guztiok buruan dugu aurrera egingo badugu elkarrekin egingo dugula, edo bestela jai dugula; eta hori pozgarria da oso! Eta horregatik, guk berresten dugu Hekimenen balioa, sinesten dugulako sektorearen gaineko gogoeta egin behar badugu eta horren arabera neurriak eskatu behar baditugu, guztiok behar dugula topaleku bat, mahai baten inguruan bildu beharrean gaudela, eta mahai hori Hekimen da. ○

## Irismena eta beste... Guk: eguzkia eta eguraldi ona!

—Neurriak eta aipatuta ditugula, azken boladan bolo-bolo dabilean berba da: irismena.

—Ai, ene! Amets gaiztoak izaten ditut hitz horrekin. Argi dagoena da, ‘irismena’ ezin dugula deabruaren pare jarri. Guk iritsi nahi dugu, horixe da nahi duguna, ahalik eta gehienengana iritsi, eta nahi dugu iritsi gainera baldintza egokietan; baina, nahi dugu iritsi helburu batekin eta hori ere aztertu behar da: gu iritsiko gara Uribe Kostako azken etxeraino, baina zertarako? Zein ondorio izango du horrek? Bada, segur aski, guk tokikook badugu indargune bat, eta hori da: toki askotan garela, etxe askotan gu garela euskaraz kontsumitzen den prentsa bakarra. Horregatik guk gerorrek laguntzen badugu euskarazko irakurzaletasuna eraikitzen eta gero, irakurzaletasun horri esker, pertsona horrek berak bestelako komunikabideak kontsumitzen baditu, maila nazionalen edo orokorrean ariko diren besteak, ongi etorri! Azkenean, guk

ere sektore osatu bat nahi dugu, non tokia izango dugun bai tokikook bai orokorrekin. Horregatik, irismena ahalik eta handiena izan dezagula guztiok; batzuek izango dugu gisa batekoa, espezializatuagoa eta maila altuagoa, beste batzuek izango dugu maila baxuagoa edo gertuagoa; desberdinak dira, ez aurkakoak, baizik eta osagarriak. Horren alde egin behar dugu, eta noski, euskara ahalik eta jende gehienarengana zabaltzeko nahi badugu, gure komunikabideak ere halaxe zabaltzeko behar ditugu, eta hori sarritu, sarritu beharko da. Ez duela horrek beharko sari bakarra? Horretan ere ados! Horregatik, bada, egin dezagun gogoeta: irismenaz gain, zer gehiago saritu behar den; badelako zer saritu. Euskararen sustapenerako zakutik ez badago diru gehiago, beharbada beste zaku batzuk bilatzen hasi beharko dugu; ezin dugulako ahaztu industria ere bagarela, orduan industria sailak ere izango du zer esanik... Beraz, ate horiek jo ditzagun, baina

jo ditzagun guztion artean; bestela, sokatiran hasten bagara, batak zenbat jaso duen eta besteak zenbat jaso duen, akabo! Lehen aipatutako mahai hori apurtu egingo da, eta hori gerta daitekeen hondamendirik handiena izango da. —Eskerrik asko, Urko; esateko beste-lakorik baduzu... —Uste nuen eguraldiaren iragarpenen bat eskatuko zenidala! —Hainbesteko aurrerapenagaz eskatzen ez naiz ausartu! —Ez dago arazorik! Urtarrilekoa ere eman diezazuket! Kar-kar. Oraingoan oso erraza da: eguzkia izango dugu dir-dir hirukarentzat! Laino beltzik ez parean! Ez halakorik badago, etorri eta kankailu honek kenduko ditu! Baina seguru nago horren beharrik ez dugu izango; eguzkiaren berotan, epelean aurrera egingo du hirukak. Kostan zaudete, eta hor hondartaz eta beste gozatzeko eguzkia behar da, eta eguzkia izan izango dugu! Horixe baietz!






## Eskualdeko kontrasteak

Erandioko industrializazio berria, azken nekazalgunekak, ezohiko elurteak, galipotaren batzea Sopolako hondartzetan, Algortako Gurea zinema zaharraren eraisketa, Burdinola gaztetxe ohia... Azken hamar urteotan Uribe Kostak utzi dizkigun irudi ugari agertu dira aldizkari honetako orrietan, eta oraingoan horien bilduma berezi bat ekarri dizuegu zuen gozamenerako. Mistizismoz eta kontrastez jositako argazki horiek eskualdeko gertakari berezien eta bertoko jendearen egunerokotasunaren erakusleho izan dira.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





















[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos



C/Iturbixi, 13  
48620 Plentzia  
Telf: 94.677.31.28  
www.cafebarzuazua.com



**PINTXOAK**  
**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:**  
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK  
**AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ**  
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburesak Ogitartekoak  
Sanwichak Plater konbinatuak  
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierr-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Bat batean eginda japoniar era tradizionalen  
www.fugulasarenas.com  
Evaristo Churruga Kaia 2 (Ionia) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO  
944 808 796  
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa



ALGORTAKO ETORBIDEA, 96  
48991 GETXO (BIZKAIJA)  
TELF. 944661661  
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM



CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462



GOSARIAK PINTXOAK  
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA  
SOPELA  
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



Menu ederra itsasoari begira  
Tf. 94 677 41 33  
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA  
www.restaurantekaieder.com

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:  
94 491 13 37  
publiuk@aldizkaria.biz

# Agur-pastela

Garai berriak ospatzeko postrea



Pintxoak alde batera utzi eta tarta berezia ekarri dugu oraingoan, guk geuk egina!

**Urtea** amaizear da, baita UK aldizkaria ere, orain arte ezagutu duzunaren ibilaldia behintzat. Hori dela-eta, eskualdean aurki daitezkeen pintxo goxoak alde batera utzi eta urte berria, zein aldizkariaren 20 urteak ospatzeko tarta dakarkizugu oraingon, sorpresa eta guzti, UK-lariok egindakoa baita! Postre hau egiteko, lehenik eta behin, labea berotu behar dugu, 220 gradutan, eta molde bat gurinagaz igurtzi. Tarta egiteko, gurina pomada puntuan jarriko dugu bol batean eta azukreagaz ondo nahastuko dugu. Ondoren, arrautzak botako ditugu, banan-banan, ore homogeneo bat lortu arte. Jarraian, azukrea eta irina oreari gehituko dizkiogu, poliki-poliki irabiatuz. Ostean, esnea gehituko diogu eta dena ondo nahastuta utzi

beharko dugu. Lortutako nahasketa moldean bota eta labean sartuko dugu 40 minutuz, gutxi gorabehera. Tarta ondo egosita dagoela jakiteko, zotz bat sar dezakegu, eta garbi irteten denean prest dagoela jakingo dugu. Ondoren, moldean bertan utziko dugu hozten, eta gogor jartzen denean, moldetik atera eta plater batean utziko dugu zerbitzatzeko. Tarta gainean nahi duguna bota ahal izango dugu, hala nola, esnegaina, txokolata eta, zergatik ez, bien nahasketa. Guk txokolate urtua eta intxaurrek aukeratu ditugu mezu bat idazteko: URTE BERRI ON! o

**Osagaiak: 150 gramo gurina, 125 gramo irin, 125 gramo azukre, 3 arrautza, 500 mililitro esne, txokolate urtua eta intxaurrek**



Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena  
**ONGI ETORRI!!**  
Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA




MONTE JAIA 1  
48991 GETXO (BIZKAIJA)  
CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM 94 460 86 48



Harategia eta txarkuteria  
ARTESANA  
LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25  
AREETA



Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaitan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra  
Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**ITXASGANE**  
prentsa • aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com  
**irati**  
OPARIAK MODA GAZTEA

**BIZKAIA**  
irratia  
BIZKAIA IRRATIA Urbe Kostan  
F.M. 102.6 Mhz  
www.bizkaiairratia.com

**Uribefm**  
Gorliz Irratia 107.8

[horoskopoa]

**URA**



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Azken UK duzu hauxe, azken Horoskopoa ete? Behintzat, hemen daukazu urte akabuko iragarpena: jana eta edana, barra-barra; opariak eskas eta, hotza, galanta!

**OTSOA**



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Olentzerori bizikleta eskatu zenion, baina gauza bat askoz hobea oparituko dizu: Hiruka proiektu komunikatibo barriaren harpidetza! Egitasmo ederra izango da, baietz gustatu!

**ADARRA**



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
UK-ko azkena, urte akabua... Badatorrela munduaren akabera? Nostradamusek aspaldirako iragarri zuen, baina urte batzuetako luzapena izan dugu; noiz arte, baina?

**AITZURRA**



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Ez zaizu egokitu Gabonetako loteria, eta ez zaizu egokituko datorren asteak ere. Beraz, ez gastatu diru tontakeria horietan; hobe duzu Hiruka-ko harpidetzan inbertitzea.

**HOSTOA**



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Hauxe denez azken UK, parrandaz parranda zabilta eten barik, zure azkena ere izango den beldurrez. Santo Tomaseko ajea Gabon Zahar gauekoagaz lotzeko asmoa daukazu?

**EGUZKIA**



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Gero eta gixtiago ikusten zaitugu, eguzki, egunak laburtzen hasi zirenetik. Gero eta txikiago zara, gero eta urrunago sumatzen zaitugu. Ai ene! Hau dena amaitzera doa!

**GARIA**



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Amaitu da UK eta soloa ere amaitu dira piperrak, tomateak eta letxugak; soloa ia hutsik dago eta nekazaria triste baino tristeago. Aizu, baina animatu, Hiruka ate joka dator-eta!

**LASTOA**



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Durangoko Azokan xahutu zenuen kultur arlorako gordetako diru guztia? Txoriburua! Orain ez duzu izango Hiruka-ko harpidetza egiteko nahikoa? Olentzerori eskatu beharko diozu.

**IRATZEA**



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
UK-ko jarraitzaile fidela zara eta horregatik egin gura duzu berehala Hiruka-ko harpidetza. Eta zure moduko ehunka behar ditugunez, kanpaina egiten lagunduko diguzu; eskerrik asko!

**META**



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Joan dira ia 20 urte eta txikia nagusitu da. Hilabetekari jai, baina koxkortu eta hamabostean behin argitaratzen hasi zen. Hazi da UK, eta orain, astekari izango da. Egoizu tartea zure aplean!

**HAZIA**



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Amaitu da, hauxe da azkena. Pala hartu eta zulatzen hasiko gara, UK-ren hilobia prestatuko dugu, eta lurperatu. Bere hondarrak izango dira Hiruka proiektu komunikatibo barrirako ongari.

**NEGUA**



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Triste bizi naiz eta, bilko banintz hobe... Lasai egon, hau ez da benetako akabua, hasiera barria baizik; jarraipena. Urtarilean indarbarrituta bueltatu gara zuri ere zoriona ekartzera.

**Egutegi bat zure argazkiekin '15**

**Cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

	<b>9'90</b> € -TIK AURRERA		<b>4'30</b> € -TIK AURRERA		<b>2'76</b> € -TIK AURRERA
	<b>25'00</b> € 100 ALE		<b>6'57</b> € -TIK AURRERA		<b>1'75</b> € -TIK AURRERA

Villa de Plentzia, 6 (Getxo) · 94 464 90 87 · areeta@cianoplan.es · www.cianoplan.es

Hegoak ebaki banizkio  
niria izango zen,  
ez zuen alde egingo  
Baina honela...  
ez zen gehiago UK izango  
eta nik...  
UK uen mate.

Laurita Siles, 2014



## gaztetxoak &gt; denborapasa

## LUMA aldizkariaren eskutik

Zutabe eta lerro guztien baturren emaitzak idatzita kontuan izanda, eman egizu animaila bakoi tarren balioa.

					30		=	
					34		=	
					34		=	
					16		=	
					24		=	
30	18	38	24	28				

## gaztetxoak &gt; bilatu eta irabazi

*Zein da Uribe Kostako komunikazio-talde berria?*

- batuka
- hiruka
- hamaika

*La Gusana* liburudenda SARIA  
 Tellagorri plaza, Algorta  
 Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Estela Barnes de Carlotto

> Irabazlea: **Xabier Uriarte Landa\***

\*deitu telefonoz: 944 911 337

## ez horren gaztetxoak &gt; non da?



**Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?**

SARIA **Oinutsik**  
 kontsulta podologikoa  
 Zubigane 4, Sopela  
 Tf. 944 047 420  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurrekoaren erantzuna: Berlinen

> Irabazlea: **Maria Begoña Etxebarria\***

\*deitu telefonoz: 944 911 337

Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



Bittor Egurrola

## BIZARRA LEPOAN ALDIZKARIAREN AURKEZPENEA, 1995-04-06

**Bizarra Lepoan** euskara elkarteak gonbidaturik, Fadurako Hitzaldi Aretoan arratsaldeko 8etan, han bildu ginen berrehunen bat euskaltzale, 0 zenbakiaren aurkezpenera (mahaian daudeneke egindakoa). Poza eta ilusioa nabari ziren gu guztiongan; poza, euskarazko herri aldizkari bat errealitate zelako, Getxon getxoztarrentzat egina; eta ilusioa etorkizunari begira, proiektua ondo oinarrituta zegoelako. Ordura arteko erreferentzia guztiak gazteleraz izan ziren (Vecinos de Getxo, Galea...) Izena, dakizuenez, Getxoko armarrarian agertzen den esaera zahar baten azken bi hitzak dira: *"Kaltea dagianac bizarra lepoan"*.

Ia hogeit urte pasa dira baina ezin dugu ahaztu algortar euskaltzale eskuzabal M. Jesus Bueno; aurkezpenean egon zen eta, zoritxarrez, gau hartan bertan hil zen. Berak utzi zigun doan aldizkariaren lehen egoitza Telletxe 5ean, Barrukoa tabernaren ondoko lonja; hor egon ginen hiruzpalau urtetan, ezer ordaindu gabe; ez argia ezta ura ere. Eskerririk asko, Marije!

Azken UK-ko zenbakia denez, une egokia da "Atzera Begira" edo [Flashback] atalean, modu batera edo bestera lagundu duzuen guztioi, eskerririk beroenak emateko.

\*OHARRA: Baina hau ez da azken [flashback], azken UK-ko [flashback] baino. Horregatik, kontutan hartuta **hiruka** izango dela... Orain artekoa eskertu eta berriro zuengana jotzen dugu laguntza eske, badakigulako primeran erantzungo duzuela. ○

**Ezkerretik hasita:** Gorka Orueta (aldizkariaren bultzatzailea), Mari Karmen Garmendia (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua: 1995-2001), Humberto Cirarda (Getxoko alkatea: 1991-1999), Konrado Mugertza (bera eta Jokin Aspuru izan ziren aldizkariaren lehenengo zuzendariak, biok batera; aipatutako biok eta Aitor Gisasolak, hirurok izan ziren proiektu honen oinarria).



**UK ALDIZKARIA** > Ez agurrik, ez adiorik. Gero arte!

# “Neure buruaz beste egingo dut proiektu berri bat sortzeko”

Testua: **Iker Rincon**



**Defini egizu zeure burua berba bitan.**

Uribe Kosta.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Anjel Lertxundiren *Kareletik* filmean, edo *Apocalipsis Now*, *Aterrizo como puedes...*

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Argazkiak begiratu eta ezer irakurri gabe zakarrontzira bota nazatela.

**Zure haurtzaroko oroitzapen bat?**

Lepoan bizarra nuela eta estresik gabe bizi nintzela; hilean behin bakarrik urtetan nintzen kalera!

**Badaukazu ohitura txarren bat?**

Beti berandu heltzea harpidedunen etxera, aitortzen dut!

**Zein da zure ametsetako bat?**

Costa Rican bizitzea eta noizbehinkari bihurtzea.

**Parrandarik politenak non?**

Astelehenetako zierre egunetan bulegoan bertan; goizeko ordu txikiak arte egoten gara martxan, lotu barik.

**Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?**

Johanes Gutenberg; zer izango nintzen zu barik!

**Kolore horia, bai ala ez? Zergatik?**

Kolore horia? Zer da hori? Kolorea luxua izan da beti niretzako.

**Gorroto duzun topikoa?**

Aldizkaria gaztelaniaz izango balitz jende gehiagok irakurriko lukeela.

**Baduzu ezizenik? Zer dela-eta?**

Ukberri, jende askok agerkari digital horregaz nahasten nau.

**Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena?**

Neure buruaz beste egitea proiektu berri bat sortzeko:**hiruka**.

**LABURREAN**—UK aldizkariak 20 urte beteko lituzke 2015ean. Hasiara batean, aldizkariak Bizarra Lepoan izenagaz hasi zuen ibilbidea, 1995ean, eta Getxorako aldizkaria baino ez zen. Urteak aurrera joan ahala, apurka Uribe Kosta osora hedatzen hasi zen, eta 1999rako eskualde osoa konkistatu zuen. Hala, Bizarra Lepoan izena alde batera utzi eta UK izatera pasa zen. Urte hauetan guztietan, eskualdeko eta kanpoko jende ugari agertu da orriotan. 20 urte igaro dira, bai, eta bada garaia agur esateko; izan ere, eskuartean duzun zenbakia UK aldizkariaren azkenengoa izango da. Hori dela eta, oraingo Aitormenetara UK aldizkaria bera ekarri dugu, urte hauetako bizipenak konta diezazkigun.

**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

**LEIOA BERRI AUTO** IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · [www.renault.es/concesion/leioaberri](http://www.renault.es/concesion/leioaberri)

Twingo Berria gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,2tik 4,3ra bitartean. CO<sub>2</sub> emisioak (g/km) 95etik 99ra bitartean.

**IRRATIA**      **ASTEKARIA**      **ATARI DIGITALA**

**BAZKIDETZA BAT, HIRU HEDABIDE**  
BAZKIDE GURA ZAITUGU!





jaietan  
euskaraz

kiroletan  
euskaraz

gure!  
artean!  
euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia